



gernika-lumo
euskaraz



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



GERNIKA-LUMOKO TOPONIMIA

Mikel Gorrotxategi Nieto

Iratxe Lasa Arana




AZKEN BERBAK, LEHENAK: ESKERRAK

- Eskerrak Gernika-Lumoko Udalari.
- Eskerrak Udaleko **Euskara Zerbitzuari**. Berezikiki Bittor Zarrabeitia eta Karlos Gonzalez euskara teknikariei.
- Eskerrak Deustuko **Deiker** Institutuari.
- Eskerrak **Busturialdean Euskaraz** elkarteko kideei.
- Eskerrak **Gernikazarra** Elkarteari.
- Eskerrak Gernika-Lumoko herritarrei.
- Eskerrak zuoi.



IBILBIDE LUZEAREN EMAITZA




DATUTEGIA ETA DOKUMENTAZIO LANA

- Ahozko bilketatik abiatu.
- Ahoz bildutakoak dokumentazioaz hornitu.
 - Dokumentazio eskasia 1936ko bonbardaketaren ondorioz.
 - Argitaratutako lanak, kartografia zaharrak, sutegiak (XVIII. mendea), polizia errolda (XIX. mendea), Bizkaiko Foru Agiritegia.
- Datutegian bildu.
- Egiaztatze lana.
- Arautze lana.



AZKEN EMAITZA

600 LEKU-IZEN INGURU



ZER DA TOPONIMIA

- Leku-izenak (topos=leku + nimia=izena).
- **Gizaki guztion kultur ondare material gabea**
(Nazio Batuak, New Yorken 2007)
Administrazioaren erantzukizuna berori zaintzea.
- Toponimiak hiru balio ditu:
 - Balio linguistikoa.
 - Balio historikoa.
 - Balio praktikoa.



ZERGATIK BILDU ETA JAGON TOPONIMIA

- Toponimia desagertzeko arriskuan: gizarte aldaketak.
- Leku-izenek hizkuntza ukipenaren eragina jasaten dute: ordezkapenak eta eragin morfosintaktikoak.

Azokakale (Frantseskale)
Zearreta (Aguakorriente)



ZELAN ERABAKI IDAZKERA ZUZENA?

- Toponimia nagusiki ahoz transmititu da.
- Ahozko erabilera jatorrizko etimologiatik urrun:
 - *Barrantze* > Barrenetxe
 - *Sigerta* > Zearreta
 - *Bideun* > Bidaguren
- Hizkuntzaren aldaketa naturalak diren ala lekuan lekuko fonetismoak diran aztertu behar da.



IRIZPIDEAK

- Ahoskeran galtzen diren kontsonanteak berreskuratu egin dira:
 - Gañaga (Gañamendi)
 - Amunaga (Amona)
 - Epertegi (Eperti)
 - Bidaguren (Bideun)
- Bokal aldaketak eta bokal arteko yod soinua ez da idatziz jasoko:
 - Kurtzea (Kurtzie)
 - Etzabie (Etxabea)
 - Merkurioiturria (Merkurioiturrixex)



IRIZPIDEAK II

- Zenbait toponimoren amaierako e:
 - *Arane*
 - *Zabale*
 - *Madurazarre*
 - *Garratzene*
 - ✎ Deklinabide kaltetuaren ondorioa, beste hizkuntza baten eragina.
 - ✎ Arazoa nominatiboan (NOR) eta inesiboan (NON).
 - ✎ Fenomeno berria baina hedatua Bizkaiko mendebaldean, Gernika-Lumotik ekialderago ez da sistematikoki jasotzen.
- Amaierako artikulua dokumentazioan nagusi denean gorde dugu.
 - *Etxebarria/Etxebarri, Barrenetxea/Barrenetxe*



IRIZPIDEAK III

- Bizkaieraren sena gorde:
 - Soinu batzuk onartzen ditugu idatziz: ñ, ll, s/z, h, x.
 - Gañaga
 - Amillaga
 - Gastañatxueta
 - Aristietabarrena
 - Bizkaieraren berezko ezaugarriak onartzen dira: barri, solo...
 - Etxebarria
 - Azpikosolo
- Toponimo konposatuak loturik, gidoirik gabe. Etxe-izenak bereziki, gure deiturak bezala: **Zarrabeitia, Gerenabarrena.**



BERBA BITAN

Euskararen batasuna indartzen duten erak lehenetsi eta euskararen ondare historikoa babestu.

Gure arbasoek sortu eta emandako izenak jagon eta ondokoei pasatu.



LIBURUKO LEKU-FITXAK NOLA INTERPRETATU



Dondizburugoikoa (-a) ik. Dondizgoikoa

Dondizgoikoa (-a) (baserria)

Ahoz: *Dondisgoikoa*

Auzoa: Lumo

Beste izen batzuk: ***Dondizburugoikoa (-a), Dondiz***

Ahoz artikulurik gabeko forma da erabilia, *Dondisgoiko*. Baina dokumentazioak argi erakusten du artikularen galera berria dela. Bi dira Dondiz baserriak: Dondizbekoa eta Dondizgoikoa. Dondizbeitia dokumentatzen bada ere, ez da Dondizgoitia formarik dokumentatu, baina seguru antzean hori izango zen garai batean erabiliko zen forma zaharra.

Ik. Dondizbekoa toponimoaz esandakoa.

Dokumentazioa:

- Dondiz de suso (1704) Bizkaiko Fogerazioak.
- Gondiz goicoa (1745) Bizkaiko Fogerazioak.
- Dondiz goicoa (1796) Bizkaiko Fogerazioak.
- Dondizburugoicoa (San Pedro) (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Dóndiz (1860) Bizkaiko Izendegia.
- Dondisgoicoa (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.
- Dondiz (1923) Voces Toponomasticas Vascas, RIEV, XIV (1923), 560.
- Dondiz de Suso (1999) Historia de Lumo, 17.
- Dondizgoiko (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 17.



Itxulikia (-a) (iturria)

Ahoz: *Itzulikie*

Auzoa: Lumo

Toponimo iluna da. Ezin esan liteke zer dagoen izen horren atzean. Baliteke iteuli hitza egotea, tabanoa alegia, beharbada inguruan ganadua zegoelako-edo. Baina amaierako -ki atzizkiaren esanahia ez letorke bat, eta ez dio esangurarik gehitzen. Akaso iteulia-ren antzekoa denari esateko erabilitako izena? Bigarren elementua hegia izan daiteke? Itaulien bazterra esangura luke izenak beraz. Ez dago baina beste dokumentu edo testigantzarik lagungarria denik.

Ixiarre (ah.) ik. Izagirre

Izagirre (baserria, teileria antzina)

Ahoz: *Ixiarre, Isegarre*

Auzoa: Arana

Mitxelenaren ustez Izagirre, bai eta Eizagirre ere, Aizagirreraren aldaerak dira. Azken honen etimologia haize eta agirre dira, haizeak jotzen duen lekua, ageriko eremua, alegia. Ez dakigu, ostera, baserri-izenak jabearen izenetik hartuko zuen izena, edota guneari egiten dion aipamena.

Arana auzoko baserri zaharra, teileria izandakoa. XVIII. mendeko azken urteetako sutegietan ageri da lehenengoz, beraz mende horretako etxea dela pentsa liteke. Izagirre etxea oso garrantzitsua izan zen, baita bertako jabeak ere. Ondoan du Santu Txireneen ermita, etxearena berarena da.

Dokumentazioa:

Izaguirre (1796) Bizkaiko Fogerazioak.

Izagarre (1923) Bizkaiko Kartografia Historikoa.

Izagirre (1930) Voces Toponomásticas Vascas, RIEV, XXI (1930), 528.


Izagirre (1999) Historia de Lumo, 18.

Izagirre (2004) Bizkaiko Gida Kartografikoa, 26.



GERNIKA-LUMOKO TOPONIMIAREN BEREIZGARRIAK

GERNIKA
Hiri toponimia



LUMO
Herri toponimia



Bizkaiera



BITXIKERIAK

- Satznamen
 - Ardauedateleku (Ajangiz)
- Mitologia aipamenak
 - Lamiñerreka



BASERRI-IZENAK, OIKONIMIA

- Etxearen ezaugarriak: Abadetxe, Etxezuri, Etxezarra, Bengoetxe, Ormaetxe, Andikoetxe
- Inguruko toponimoak: Bastegieta, Amillaga, Amunaga, Urramendi.
- Jabearen izenetik eratorriak: Akurioena, Benturena, Alargunena, Barrrenderoena, Ezkerrena
- Baserri multzoak: goiko/beko, goiti/beiti, gañeko/azpiko, barrena/goena, beaskoea/goxeaskoa, atzekoa/aurrekoa.
- Errotak, boluak eta olak: Olazarraga, Mendiola.
- Exonimoak: Billarkaio, Alegria.



BASO-IZENAK

Baso-izenek garai bateko Gernika-Lumoren ezaugarri geografikoei buruz asko diosku. Besteak beste zelango landaretza zegoen:

- Gaztañadiak: Gastañatxueta, Gastañazabal
- Haritzak: Mendiaretxeta, Arestigartueta
- Ezkiak: Ezkileku
- Pikuak: Ikoaga
- Intxaurrondoak: Intxaurreta
- Gerizondoak: Kerixeta
- Madariondoak: Madariaga
- Mahastiak: Mastegizarra



AMAIERABAKO BEHARRA

- Toponimia liburua bilketaren hasiera baino ez da.
- Hemendik aurrera datutegia aberasten jarraitu behar: Internet.

HERRITARREN PARTE HARTZEA ETA
EKARPENAK EZINBESTEKOAK IZANGO DIRA

